

ZURE LOKALA APAINDU!

Hartzaileak: Zizur Nagusian lokala duten eta 30 urte baino gutxiago duten gazteak.

Beharrezkoa:

- Izen-emate fitxa osatzea¹.
- Apainketa-lanak egiteko, lokaleko jabearen baimena izatea (hitzartua edo idatzia).

Baldintzak:

- Adeigabeak, sexistak, xenofoboak edota pertsonen duintasunaren kontrako edukiak dituzten lanak ez dira onartuko.

Kontuan hartuko da:

- Originaltasuna
- Sormena
- Erabilgarri dagoen esparruaren erabilera
- Eskulana (eskuz egina, birziklatutako produktuen erabilera, etab.)

Sariak:

- 1º saria: 300€
- 2º saria: 200€

Epeak:

- Izen-emate epea: **azaroaren 2tik 16ra**.
- Lan epea: **azaroaren 18tik abenduaren 14ra**.
- Balorazio epea: **abenduaren 16tik 21era**.

Egite epea bukatzerakoan, lanaren argazki bat bidali beharko da telefono bitartez. Ondoren Ametxeako lan taldea, aldezturik jakinarazita, lokaletatik pasatuko da lanaren balorazioa egin ahal izateko.

¹ Izen-emate fitxa osatu ondoren lokal bakoitzak, apainketa-lanak hasi baino lehen, gunearen argazki bat bidali beharko du.